

Kultura

Nerea Mujika (Gerediaga elkarte): "Azokaren 50. urtemuga borobila izan da". > 14



Lurretarrak Wikipedian

Herriko hainbat elkarte, eragile eta norbanako batuko dira bihar, Ibarretxe kultur etxean, Wikipedian lurretari dagokion atala denen artean osatzeko. Ekimen parte-hartzaile hau aitzindaria da Durangaldean. > 4

Lehior Elorriaga

Down sindromedunen aldeko maratoia antolatuko dute domekan, Elorrion

Herritarren partaidetza sustatu, eta aurreiritziak uxatzea da domekako maratoiaren helburua. Oskar Seoane Euskal Herriko Down sindromedunen aldeko fundazioko presidentek dioenez, "jendeak uste du ezintasun intelektuala dutenak ez direla kirola egiteko gai, baina badira". *Spinninga* eta *junpinga* praktikatzearaz gain, errugbi tag-a antolatuko dute. > 7

"Compact of Mayors-ekin emisioak %20 baxatzea da helburua" > 3

Aitor Larruzea
Durangoko Ingurumen Plangintza arduraduna



RESTAURANTE
akebaso
JATETXEA

Etorri Akebasora
zuen enpresako bazkaria
edo afaria ospatzera!



San Juan auzoa, 20 · Atxondo · Tel.: 946 582 060
www.akebasorestaurante.com

Durango > 3

Sexu eraso saiakera bi gertatu ziren joan zen asteko zapatuan

Zornotza > 2

Artisautza azoka solidarioa asteburuan, Ogenbarrenan

Berriz > 6

Udal inbertsioetarako ideiak batzen hasiko dira Berrizen

Mallabia > 4

Mallabiko baserriak GPS bidez lokalizatu gura dituzte



Larruceak bizikleta erabiltzen du bere eguneroko joan-etorrietarako.

“Durangon, 2016. urtean martxan egongo da organikoaren bilketa”

Larrucea Ingurumen plangintzarako arduradunak egitasmo berriez dihardu

> DURANGO Markel Onaindia Klima aldaketaren aurkako borrokan erreferentzia hartzen dabil Durango. 11 kilometroko bidegorria, oinezkoentzako guneak, Berdeago azoka, Udal-erri Jasangarriari saria, mugikortasun jasangarria bultzatzeko kanpainak ikastetxeetan... Duela aste bi, Compact of Mayors ekimenagaz bat egin zuen. Horren berri eman du Aitor Larruceak (Durango, 1975).

Zer suposatzen du errekonozimendu honek?

Errekonozimendua baino, udalak hartzen duen konpromiso bat da. Nazio Batuek proposatutako ekimen bat da. Gu jasangarritasunaren aldeko Udalsarea 21en sartuta gaude, beste 200 udalerrigaz. Eusko Jaurlaritzak hortik hamar udal-erri aukeratu, eta Nazio Batuetara aurkeztu ginen. Auditoria bat pasatu genuen, eta, azkenean, lortu dugu. Nazioarte mailan, 90 bat udal-erri, 14 europarrak. Horietatik hamar Euskal Herrikoak dira.

Noiz hasi zineten gaia lantzen?

Durango 2009an hasi zen klima aldaketaren aurkako neurriak ezartzen. Osoko bilkurak ordenantza bat onartu zuen, Europa mailan nahiko aurreratua dena. Urtero, berotegi efektuko gasen inventario bat egiten dugu: zenbat auto dauden, industriak isurtzen duena, hondakinak... Ordenantzak neurriak ezartze-rahartu gintuen. Partaidetza foro batean, klima aldaketaren aurkako 2010-2015 udal progra-

ma onartu zen. 2006tik 2015era bidean, isurketak %2 ez igotzea zen helburua. Asko hobetu dugu, gure isurketak %13 murriztu ditugu eta. Compact of Mayors-ekin, 2020rako %20 baxteza da helburua.

Duela hamar bat urte aire kalitatearen inguruko kezka sortu zen Durangon.

Klima aldaketaren aurkako ekintzetan, airearen kalitatearen inguruko plan baten eraginez hasi ginen. Durangok arazoa zeukan aireagaz. 2004an, kalitate oneko airea urteko 168 egunetan eduki genuen soilik; beste urte erdian, aire txarra eduki genuen. 2013an, urteko 361 egunetan eduki genuen kalitate oneko airea. Aldaketa izugarria izan da.

Eta zelan lortzen da hori?

Adibidez, nekazaritza ekologikoa sustatzen da hobari fiskalekin, auto elektriko edo hibrido-zen zergetan ere bai, bizikleten erosketa bultzatu da, mugikortasun arloan 11 kilometroko bidegorria eraiki dugu...

Industriaren moldaketek eragina eduki dute?

Enpresek neurri asko hartu dituzte, eta inbertsio handiak egin ere bai. Bestetik, 2003tik hona, Durangoko mugikortasuna pila bat aldatu da. Kale gehiago dauzkagu oinezkoentzat, eta autoaren erabilera asko gutxitu dugu barne trafikoa, zortzi urtean %30etik %19ra pasatu gara.

Bizikletaren erabilera, ze portzentaian dago?

Gasteizen antzerako kopuruetan gaude. Han, garraioen %8 da bizikleta bidez, eta Durangon %7,3ko portzentaia daukagu. 2020an 22 kilometroko bidegorria edukitzea da gure plana. Ez dago guztiz zehaztuta, baina sarea kanpotik zarratzea falta da.

Hondakin organikoa ez da birziklatzen Durangon. Baduzue zerbait pentsatuta?

2016a amaitu orduko, hondakin organikoen bilketa ezartzea gura da European. Gure aurreikuspena da 2016 erdialderako ezartzea. Zabor bilketaren lan-kontratua amaitzen da orduan, eta lehiaketara aterako den kontratu berriari hori ezarriko da. Oraindik, zelan batu erabakitzeko dago, hondakin inguruko partaidetza foro bat martxan dago; bost batzar egin ditugu, eta ondorioak ateratzeko, beste pare bat egingo ditugu. 70 bat lagunek parte hartu dute batez beste. 2016an martxan egongo da organikoaren bilketa.

Beste zer erronka duzue aurrea begira?

Agenda 21eko plana da gure erreferentzia. Durango oinezkoen eta bizikleten garraioan zentratzea gura dugu. Energiari dagokionez, kontsumoa murrizteko neurriak hartu ditugu, baina berriztagarrien arloan jauzi bat eman behar dugu. Garraioan, auto elektrikoak kargatzeko puntuak ipini beharko dira.

Sexu eraso saiakera bi gertatu ziren, zapatuan

Erasoak salatzeke, Plataforma Feministak elkarretaratzea deitu zuen atzo, Andra Marian

> DURANGO M.O.

Udalak informatu duenez, joan zen asteko zapatu gauean, sexu eraso saiakera bi gertatu ziren, Durangon. Horiek salatu dituzte Berdintasun Kontseiluak eta batzordeak, eta atzo, Andreak elkarteak eguenero egiten duen protestan parte hartzeko deia egin zuten Plataforma Feministatik. Gainera, eraso saiakerak sufritu zituzten neska biak babestu ditu udalak ohar bidez, eta beharrezko ba-

liabideak ipintzeko prest agertu da. Bestalde, mugimendu feministak aparte deitu ditzakeen mobilizazioekin ere bat egin du udalak.

Eraso saiakerak sufritu zituzten neska biak babestu ditu Durangoko Udalak, ohar bidez azaldu dutenez

BEZ kulturala murriztuko duela dio Podemosek

> DURANGO M.O.

Espainiako hauteskunde kanpaina hasi zen joan zen barikuan, eta Podemos-Ahal Dugu alderdikoak Durangon egon ziren, Durangoko Azokaren bueltan, kultur proposamenak aurkezteko. Juantxo Lopez Uralde Arabako zerrendaburuak azaldu zuen Espainiako gobernura heltzen badira BEZ kulturala murriztuko dutela.

Eduardo Maura izango da Bizkaiko zerrendaburu, eta esan zuen “euskararen inguruan alderdiak duen interesa” erakusteko etorri zirela Durangoko Azokara.

Nagua Alba Gipuzkoako ordezkariak azaldu zuen estatuko kultur aniztasuna defendatuko dutela. Horren baitan, “euskarari duen garrantzia” eman behar zaiola esan zuen.



Podemos-Ahal Dugu alderdiko hautagaiak, Durangon.

‘Bakerako euskal bidea’-ren berbaldia, eguaztenean

Besteak beste, Josu Muguruza zenaren alabak parte hartuko du EH Bilduk antolatutako berbaldian

> DURANGO J.G.

Espainiako Kongresurako eta Senaturako Hauteskunde kanpainaren barruan, EH Bilduk berbaldia antolatu du datorren eguaztenerako, 19:00etan, Durangoko Hizkuntza Eskolan. *Bakerako Euskal Bidea. Memoria eta aitortza* egitasmoaren barruan, hiru gonbidatu batuko dituzte Durangon. Ane Muguruza, Josu Muguruzaren alaba, Julen Arzuaga EH Bil-

duko legebiltzarkidea eta Jon Iñarritu Kongresurako hautagaia. EH Bilduk “deialdi zabala” egin du eguazteneko berbaldira joateko.

Ane Muguruza, Julen Arzuaga eta Jon Iñarritu hitzaldian batuko dira, Durangon

Iurretapedia, elkarlanaren emaitza

Iurretako hainbat elkarte eta eragile batuko dira bihar, Wikipedian Iurretako atala idazteko

IURRETA Jone Guenetxea Euskal Herrian ekimen aintzindaria jarriko du martxan Iurretako Bibliotekak. Izan ere, Wikipedian Iurretako atalari dagokion informazioa herriko elkarte, eragile, eta norbanakoek elkarlanean idatziko dute. Ez da erronka makala esku artean dutena; bihar, zapatua, Ibarretxe kultur etxean batzeko hitzordua jarri dute, elkarlanean Wikipediaren Iurretako orrialdea idazteko. Besteak beste, Gurutze Frades kirolaria, Anderebide emakume elkarte, dantza taldea, ikastetxeak, Fasoden Maliko elkarte, eta udala dira parte-hartzaileen aniztasunaren adierazle. Lanari ekiteko KZ Guneko ordenagailuak erabilgarri egongo diren arren, eskura dituztenei ordenagailu portatilak eramateko eskatu diete. Aurreko asteetan hitzordu hori prestatzeko ikastaroak ematera etorri den Xabier Cañas euskal wikilaria ere gonbidatu dute zitara.

Urteurrenaren harira Ziortza Onaindia Iurretako Bibliotekako arduradunak azaldu duenez, Iurretaren de-

sanexioaren 25. urteurrena baliatuz ipini gura izan dute martxan Iurretapedia proiektua. Izan ere, Kataluniako beste herri batzuetako esperientziak ezagututa, Iurretan antzeko proiektu bat sortzea gura zuten.

Lehenengo euskaraz Ekimena parte-hartzailea eta euskalduna da oinarrian. Euskarazko atala osatzen dutenean beste hizkuntzetara itzultzea gura dute. “Herriko elkarte eta eragile guztiei gonbidapena luzatu diegu, eta denek baietz esan dute”, dio Onaindiak. Hala ere, teknologia berrien erabilera elkarte guztien esku ez dagoenez, malgutasun osoz jokatzeko ari dira, ahalik eta parte-hartze handiena bermatzeko. Helburua da bakoitzak bere jakintzatik proiektu osoari ekarpena egitea.

Onaindiak gogoratu duenez, Gerediaga elkarteari lan-ildo batzuk markatzeko eskatu diote, eta oinarri horretatik abiatuta, elkarte, eragile eta norbanakoek elkarpenak jasotzea da asmoa.



ANBOTOK ere parte hartuko du Iurretapedia proiektuan.



Gurutze Frades
Atleta.
34 urte.

Zelan ekin diozu Iurretapedia proiektuari? Anderebide emakume elkarteak proposatu zidan nire ibilbide profesionalari buruz idaztea, Iurretako zatian lotura egiteko. Ekimen berezia iruditu zait eta parte hartzeko gogoz nago.

Kirolean izan dituzun lorpenekin ez zaude oraindik Wikipedian? Ez, beste kirolari batzuen irakurri izan dut, baina, egia esan, ez zait sekula bururatu Wikipedian neure buruari buruz idaztea.



Miren Abasolo
Jai batzordea.
38 urte.

Zer ekarpen egingo diozue Iurretapediari? Jai batzordearen historia kontatuko dugu, eta herriko jaien inguruko ohiturak azalduko ditugu. Horixe da asmoa.

Zer lan dinamika duzue? Aurreko belaunaldietan jai batzordeko kideak izan diren pertsonekin biltzeko asmoa dugu informazio hori jasotzeko.

Proiektuari zer deritzozu? Ideia ona da. Informazioa jaso eta denon artean ekarpena egiteko modu ona da.



Erlantz Zaldunbide
Zaldai mendi taldea.
33 urte.

Proiektu honi zer deritzozu? Iurretako ezagutzera emateko era bat da. Gainera, norbanakoen eta elkarten artean zer edo zer aberasgarria egin daiteke.

Zer ekarpen egingo duzue Iurretapedian? Alde batetik, Zaldai mendi taldearen berri emango dugu, bere jardura eta historia kontatuta. Bestetik, Iurretako geografiara begira, herriko mendiak zeintzuk diren eta zer altuera duten idatziko dugu. Iurretaren muga geografikoez ere idatziko dugu.

Siriako errefuxiatuei laguntzeko kanpaina abian

Abenduaren 15era arte egongo da martxan

IURRETA Aitziber Basauri Iurretan sortutako SOS Siria elkarteak kanpaina jarri du martxan Siriako errefuxiatuei laguntzeko. Janari potoak —txerria ez duten elikagaiak—, erabilitako mantak edo berriak, haur-oihalak, umeentzako es-

ne-hautsa, eta, eskola zein osasun-materiala batuko dituzte abenduaren 15era bitartean. Arroparik ez dute batuko.

Bixente Kapanaga kaleko 15ean utzi dieten biltegian batuko dute jasotako guztia, SOS Siria elkarteko Meriem Aboubik

azaldu duenez. Bertotik egoitza Madrilen duen Asociacion de Apoyo al Pueblo Sirio (AAPS) elkarteagaz jarriko dira hartu-emanen, eta haiek bideratuko dute guztia behar den tokira. SOS Siriak bideratuko du baita Oñatin egindako giza laguntzako kanpaina batutako guztia ere. Iurretan dute han batutakoa; Getxon bildutakoa ere bai.

Elkarteagaz hartu-emanen jartzeko, 632082242 telefono zenbakira deitu daiteke edo mezua bidali sos.siriapv@gmail.com posta elektronikora.

‘Marijesiak Ijorretan’ topaketa antolatu dute biharko

IURRETA A. B.

Doinu berezia hartuko dute aurreko Iurretan abendu koplek. Izan ere, Abendu Koplak edo Marijesiak abesten dituzten herrietako hainbat talde batuko dituen ‘Marijesiak Ijorretan’ topaketa egingo dute, abenduaren 12an. ‘Abendu koplak’ es-

kainiko dituzte Aita San Migel elizan, 19:00etan. Iurretako eta Oromiñoko taldeekin jardungo dute Ea, Areatza (Muxika), Gautez-Arteaga, Ibarangelu, Mendata, Mendiola (Abadiño), Gernika eta Lekeitioko taldeek.

Elkartasun Azoka

Bestalde, Anderebidek antolatuta, III. Elkartasun Azoka egingo dute Ibarretxe kultur etxean, hilaren 14tik 18ra —9:00etatik 13:00era eta 16:30etik 19:30era—. Azokan batutako dirua JAEDera bideratuko dute.

m o m o t x o
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

MIEKO 4D
ESPECIALISTAS EN ECOGRAFÍA PRENATAL

Orain, Durangon, MiekO4D
Zure ekografiarik osatuena 50 eurotik gora,
eta 20 euroko beherapenak
bigarren ekografiatik aurrera.

Ollería, 5 etxebaia DURANGO · Tel.: 690 048 681



GREMIOEN GIDA

 **DEKORAZIOA**

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industriadan, 45 Garain A - Berriz
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

 **GARBIKETA**

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goietza, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991

 **LOREZAINNTZA**

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23, 1. ezk. PATXI
48200 DURANGO 696 463 085

 **ITURGINTZA**

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com




iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net




**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

ABENDUKO SARIAK

HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA DVDA
Patrick Modianoen "Udaberri alua" liburua eta "Ice Age 3: dinosaurioen egunsentia" DVDA.




GOIATZ MURUA ETA AINHOA ELORZA
PODOLOGIA KLINIKA. KIROPODIA KONTSULTA
Oinen tratamendurako kontsulta bat: gogorguneak, azazkaletako arazoak...



SALTSAN KATERIN. EGUEN SALTSAN
Kalitate handiko produktuen dastaketa, 2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo, 2 ardorekin lagunduta.



LAPIKO JATETXEA. MENUAK
2 pertsonentzako menu berezia igande eguerdirako.



SAN AGUSTIN. TXARTELAK
San Agustin bazkide txartel bat eta San Agustin txikitxartela.




ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

anboto
komunikabideak

 @anboto

 Anboto
Komunikabideak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org

Tel.: 946 816 558

Gazta-proiektua abiatu dute Orobiogoitian



Ikasle bakoitzak 10 gazta erdi saltzeko konpromisoa hartu du. Orobiogoitia

IURRETA Aitziber Basauri Iurretako Orobiogoitia Institutuak pauso berri bat eman du "bertoko eta kalitatezko produktuak" kontsumitze aldera: 4. DBHko ikasleek urtero antolatzen duten ikasketa bidaia finantzatzen laguntzeko, bertako Idiazabal gazta salduko dute. Hurrengo urteetan "finkatu" gura duten proiektu hasiberri hori Agenda 21ekin dator bat; Ingurumen sailak emandako 'Institutu jasagarria' izendapenagaz.

2014-2015 ikasturte amaieran Guraso Elkartekoen luzatu zioten proposamena institutuari. Otxandion ikasle batzuen familiakoek gazta egiten zutela jakin ostean, proposamena ontzat hartu, eta familia horrengana zuzendu ziren proiektua azal-

tzeko. "Pozarren hartu zuten ekimena, eta guztiontzat baldintza egokiak adostu ondoren, lanari ekin genion", azaldu dute. Ikasle bakoitzak 10 gazta ale —gazta erdiak dira— saltzeko konpromisoa hartu du.

Elkarlanean

Aurten hasi dute gazta-proiektu hau, hala ere, datozen urteetan finkatzen joatea da Orobiogoi-tiako arduradun eta ikasleen helburua. Gazta ekoizleek ere bat egiten dute egitasmoagaz, eta hasitako elkarlanean berri zabaldu gura izan dute. Bide horretan, hainbat gai ari dira aztertzen. "Gazta ekoizteko modua ikasleei ezagutaraztea, gaztandegira bisita egitea... Baina pausoz-pauso joan behar dugu, gure lehenengo erronka aurten-gaztak ondo saltzea da-eta".

Akordioa adostu dute Cemosako langileek eta zuzendaritzak

ATXONDO J.D.

Cemosako langileek eta zuzendaritzak lan-hitzarmena berri-berri zuten asteaz. 2013az geroztik lan-hitzarmena berri ezinik zebiltzan.

Zuzendaritzaren aldetik negoziatzeko "borondaterik eza" salatu zuen enpresa komiteak, eta langileek greba mugagabea hasi zuten azaroaren 23an. Enpresak dituen 160 bat langileetatik 137 batu ziren komiteak deitutako batzarrera

Astebete greban eman ostean, negoziazioei ekin zieten enpresa komiteak eta zuzendaritzak

eta gehiengoak grebaren alde egin zuen: 99 alde, 37 kontra eta boto zuri bat. Horrela astebete iraungo zuten greba hasi zuten langileek.

Greba zirauen artean, zuzendaritzak negozio mahaira deitu zituen. Orduan greba bertan behera utzi zuten behin-behinean eta negoziazioei ekin zieten alde biek. Hurrengo egunetan akordioa zehazteko bilerak egin zituzten, harik eta adostasunera heldu arte.

Herriko baserriak GPS bidez lokalizatuko dituzte

MALLABIA I.E.

Hiri-patruilen figura berreskuratu gura dute Mallabian. Igor Agirre alkateak azaldu duenez, Eibarko Ertzaintzatik jakinarazi dietenez, Mallabian hiri-patruilak martxan jarri gura dituzte landa eremuetan zein beharrian dituzten eza-gutzeko. Era berean, larrialdi egoerei begira, herriko baserriak GPS bidez lokalizatuko dituzte. Horrela, ambulanziek baserriak aurkitzeko dituzten zailtasunak gainditu gura dituzte. Izan ere, Mallabian, hirigunea kenduta, bost auzo daude, eta, inguru horretan, baserriak aurkitzeko zailtasunak izaten dituzte.

Agirrek gogoratu duenez, gai hau, auzoetako bizilagunekin urrian eta azaroan egingako batzarretan azaldu diete herritarrei.

Inbertsioetarako ideiak batzen hasiko dira Berrizen

Abenduaren 14an eta 17an izango dira lehen foroak

BERRIZ A.U.

Udal aurrekontuko 150.000 euro zer inbertsioetara bideratu erabakitzekeo batzarrak hasiko dituzte, datorren astean. Prozesu bi jarriko dituzte martxan; bata herriguneko inbertsioetarako, eta bestea landa-gunekoetarako. Herriguneko lehen foroa

astehenerako deitu dute, eta 100.000 euroko inbertsio partida zertan erabili erabakiko dute. Auzoetako lehen batzarra, berriz, egunetan izango da, abenduak 17, eta 50.000 euro non inbertitu erabakiko dute. 19:30ean hasiko dira bi batzarrek, Berrizko kultur etxean.

Zerga eta tasak ez dituzte igoko 2016an

GARAI M. O.

Garaiko Udalak 2016rako udal zerga eta tasak ez igotzea erabaki du. Beraz, bere horretan mantenduta, garaitarrek aurten kopuru berberak ordaindu beharko dituzte datorren

urtean ere. Ordenantza fiskalak aldatu ez direnez, gaia ez dute osoko bilkuran onartu behar izan.

Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazi du batez ere bi arrazoi-rengatik hartu dutela erabakia; batetik, udalak ez ei daukalako diru gehiagoren beharrik; bestetik, "gauden egoera ekonomikoan egonda", herritarren poltsikoetan pentsatu dutela esan du Sarrigoitiak.

Down sindromedunen aldeko kirol maratoia egingo dute domekan

Seoane: “Jendeak uste du ezintasun intelektuala dutenak ez direla kirola egiteko gai, baina ez da egia”

ELORRIO Markel Onaindia “Jardunaldi polit eta atsegina izango da”. Oscar Seoanek, Euskal Herriko Down sindromedunen aldeko fundazioko presidenteak horrela definitu

Herritarren partaidetza sustatu gura dute, eta baita aurreiritziak uxatu ere

du domeka honetan ospatuko den kirol maratoia. Herritarren partaidetza sustatu gura dute, eta baita aurreiritziak uxatu ere: “Orokorrean, jendeak uste du ezintasun inte-

lektuala duten pertsonak ez direla kirola egiteko gai, baina ez da egia”. Eguaztenean egin zuten maratoia aurkezteko prentsaurrekoa, eta Seoanegaz batera, Idoia Buruaga alkatea, Down sindromea duten Mikel Jauregi eta Unax Lopez, eta azken honen aita Alex Lopez ere egon ziren. Jardunaldian parte hartzera deitu zuen Buruagak: “Etorri eta parte hartu dezala jendeak, egunak mereziko du eta”.

600 pultsera Goizeko 09:30ean hasiko da maratoia, kiroldegian, spinninga praktikatzan. 11:00etan, leku berean, jumpingaren txanda izango da. 11:00etan ere, baina



Domekako jardunaldiaren bultzatzaileak, prentsaurreko ostean, plazan.

aparkalekuan, errugbi tag-ean jolastu ahalko da, eta 12:30ean zumba dantzatuko dute plazan.

Parte hartu gura dutenek kirol bakoitzerako diseinatutako pultsera erosi beharko dute. Errugbikoak euro 2 balio du, eta gainerakoek 5. Kiroldegian eta Parra tabernan eskuratu ahalko dira pultserak, eta baita egunean bertan ekitaldietan ere.

600 bat pultsera atera dituzte antolatzaileek.

Elorrion, babestuta

Alex Lopez eta Unax semea elorriarrak dira, eta “Elorrion beti babestuta” sentitu direla adierazi du aitak. Domekako ekimena eskertu du: “Horrelako gehiago egin gura ditugu”. Unax bera da Down sindromedunek kirola

egin ahal dutenaren froga, igeriketan dabil eta.

Oscar Seoanek aldarrikatu du kirolak garrantzia handia duela Down sindromea dutenentzat, arlo fisikoko onura ekartzeaz gainera, taldeko balioak ezagutzeko aukera bat delako. Horregatik, domekan Elorrion ospatuko den jardunaldia “oso positiboa” dela azaldu du.

Janari bilketa egingo dute Lourdesko Ama ikastetxean

ELORRIO M.O.

Lourdesko Ama ikastetxean Gabonetako elkartasun kanpaina garatuko dute abenduaren 28tik urtarrilaren 5era bitartean. Elorrioko Elikagaien Bankurako janari bilketa egingo dute alde batetik, eta bestetik, jostailuak, eskola materiala eta higienarako produktuak ere batuko dituzte.

Kanpainaren bultzatzaileak goizeko 10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 20:00etara egongo dira ikastetxean astegunetan; zapatuetan goizez bakarrik, eta jai egunetan ez dira egongo. Eskolaz gain, Sagastizabal dendan eta Urizar harategian ere utzi ahalko dira jateko produktuak.

Xara taberna eta Patxi Aranberri harakina garaile Buzkantza Jaian

III. Buzkantza Jaian, epaileen eta herritarren sariak leku berean jausi dira

ELORRIO A.U.

Odoloste zapore eta usaina izan zituen Elorriok joan zen asteburuan. Izan ere, III. Buzkantza

Jaia ospatu zuten, eta horrela, Elorrion hain tradiziozkoa den jakia dastatu ahal izan zuten herritarrek. Alde batetik odoloste



Xara tabernako izozki erako odoloste pintxoa.

txapelketa burutu zuten, eta bestetik, tabernetan, odoloste pintxo txapelketa. Lehenengoan Patxi Aranberri harakina izan zen garaile, eta bigarrenean Xara taberna. Gainera, epaileen eta herritarren sari biak jaso zituzten biek ala biek.

Txantxibiri kalean dagoen Xara tabernakoek izozki itxurako pintxoa aurkeztu zuten. Barkillozko kukurutxoan, odolosteagaz eta azagaz egindako nahasketa eduki zuen pintxoak, errege-sagar konpotagaz. Pintxoak gatzagaz eta uragaz egindako euskarri baten aurkeztu zuten. Aurreko urte bietako txapelketetan ere saritu izan dituzte Xara eta Patxi Aranberri.

Aurrekonturako proposamenak aztertuko dituzte gaurko batzarrean

MAÑARIA M.O.

Mañariko Udala 2016rako aurrekontu parte-hartzaileak lantzen dabil, eta, gaur arratsaldean, herritarrek egindako ekarpenak aztertuko batzarra burutuko dute udaletxean, 19:00etatik aurrera. Batzar zabala izango da, udal arduradunek informatu dutenez. 2016rako aurrekontuan, 25.000 euroko partida bat gorde dute herritarrekin batera zer egin erabakitzeko.

Bestalde, umeekin ere 10.000 euro zelan bideratu aztertzen dabilta. Datorren barikuan, hilaren 18an, egingo dute ondorioen aurkezpena umeek, arratsaldeko 19:00etan. Gaur prestatuko dute aurkezpena.

Bizkarra
jatetxea

Gabonetan janaria prestatzeko gogorik ez?
Geuk lagunduko dizugu

Etxera eroateko janaria, betikoa, etxeakoaren modukoa

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO · Tel.: 946 812 026

Sagar zuku dastaketa eta koltzagaz egindako biodiesel, etziko azokan

Baserriko eta artisautzako 40 postuekin batera hainbat erakustaldi egongo dira



Herri kirolen erakustaldiak egongo dira, aurreko aldietan legez.

OTXANDIO J.D.

Kementsu elkarteak baserriko produktuen azoka antolatuko du domekan, goizetik eguerdiko 15:00ak ingurura arte. Urtero legez, askotariko erakustaldiak ere antolatu dituzte azokaren harira.

Esaterako, Otxandioko Kexara baserriko Felix Ajuriak koltza zerealetik eratorritako biodiesel egiten du. Azokan biodiesel egiteko makina erakutsiko du, eta prozesua azaltzen duten informazio panelak ere egongo dira.

Aramaioko Iturrieta sagar-dotegiak sagar zukua dastatzeko aukera eskainiko du. Sagarrak zukutzeko prentsa eramango dute, eta erakustaldiak egingo dituzte. Alemanian eta Austrian asko erabiltzen diren makinak direla azaldu dute Iturrietako arduradunek: hiru-lau baserriarrek elkarlanean sagarraren eta beste hainbat fruten zukua egiteko erabiltzen dute.

Herri kirolak ere izango dira: Irati Astondoa, Belen Astondoa, Jon Loiola eta Jaime Atxak aizkora, trontza eta txokor batze

erakustaldiak egingo dituzte. Jan-edanik ere ez da faltako azokan. Taloak ez ezik, otxandiarrek egindako buzkantzak dastatzeko aukera egongo da. Goiz osoan dultzaineroak eta trikitilariak ibiliko dira giroa berotzen.

Azoka 40 postuk osatuko dute. Horietatik 18 baserri produktuenak (gazta, ogia, ortuariak...) izango dira, plazan. Artisauen mahaiak (bitxigintza, kremak...) pasealekuan eta udaltxe azpian egongo dira. Ekoizleak Euskal Herri osotik datoz.

Herriko komertzioa bultzatzeko kanpaina

500 erosketa bono kaleratu ditu Zaldibarko Udalak

ZALDIBAR I.E.

Urtarril amaierara arte herriko dendetan erosteko baliatu ahalko diren bonoak atera ditu Zaldibarko Udalak, "herriko merkataritza bultzatu asmoz". *Zaldibarren bizi, Zaldibarren erosi* izena du kanpainak, eta hamabost dendek hartuko dute parte bertan. 5.000 euro bideratu ditu udalak ekimen horretara, eta 500 bono atera dituzte.

Hamar euro ordainduta, herriko dendetan 20 euroko balioa izango duten bonoak eskuratu

ahalko dituzte zaldibartarrek, aste honetatik aurrera. Udaltxean (goizez) eta KZgunean (arratsaldean) eskuratu ahalko dira bonoak, eta aurreratu dutenez, herritar bakoitzak bi erosi ahalko ditu, gehienez.

Arantza Baigorri alkatearen berbetan, "gabonetako opariak herrian bertan erosteko aukera" indartu gura dute kanpaina honeguz, eta EH Bilduk huteskunde programan adierazi bezala, "herriko merkataritza bultzatzeko pausoak eman".

Sahararen aldeko bigarren eskuko azoka, domekan

Gaztetxeak antolatu du etziko azoka solidarioa

ZALDIBAR I.E.

Domekarako, abenduaren 13rako, antolatu du Zaldibarko Gaztetxeak Sahararen aldeko bigarren eskuko azoka solidarioa. Liburugi Zaharreko azoka horretan, herritarrek emandako bigarren eskuko arropak zein askotariko gailuak ipiniko dituzte salgai. Ekimen horregaz

batzen duten dirua Hamadako Izarrak elkarteari emango diote gazteek, Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan uholdeek eragindako kalteei aurre egiten laguntzeko.

11:45ean zabalduko dute azoka, baina horren aurretik, 11:00etan, berbaldi bat izango da, Liburutegi Zaharrean.



Joan zen domekan ospatu zuten azokako irudia.

Eguraldia lagun, giro onean egin zuten Gaztardogi azoka

Eskualdeko ekoizleenak izan ziren postuetako asko

IZURTZA J.D.

Gaztardogi azokaren aurtengo aldiaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Iaz eguraldiak ez zuen lagundu eta horrek jende emariari eragin zion. Joan zen domekan, ordea,

domeka goiz eguzkitsu eta epela egin zuen, eta giro ona izan zen Izurtzako pilotalekuan eta plaza inguruan.

Gazta, ardo eta ogiaren gaineko postuen artean Durangaldeko hainbat izan ziren: Maider

Unda kirolari otxandiarraren Atxeta gazta, Abadiñoko Atxarte gazta eta Mañariko ogia, beste beste. Beste arlo batzuetako postuak ere izan ziren, egurrez landutako artisautza lan dotorenak, esaterako.

Jubilatuen lokaleko atarian jaietako argazki lehiaketan parte hartu duten argazkiez osatutako erakusketa atondu zuten, hiru irabazleenak nabarmenduta. Jan-edanerako aukera ere izan zen, Eusko Labeleko oilasko pintxoekin.

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

SCHMIDT



Murueta auzoa, 6-17B lokala · Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO · Tel.: 946 526 195 · info@schmidt-abadiano.com

Prekarietatearen aurkako eguna deitu du LABek, biharko

DURANGALDEA M.O.

LAB sindikatuak prekarietatearen aurkako eguna deitu du, biharko. Abadiñoako Eroski supermerkatuko aparkalekuan egingo dute lehenengo protesta, 10:30ean. “Merkataritza-gune horretan gazteek eta emakumeek pairatzen duten prekarietatea” salatuko dute, sindikatuko ordezkariak oharrean diotenez. Zornotzan lan istripuak salatuko dituzte ordu berean, eta 11:45ean elkarretaratzea burutuko dute Erreferendum plazan. Ermean, bestalde, aparteko orduen aurka mobilizatuko dira 10:30ean, Orbe kardenalaren enparantzan.

Etxaide, Durangon

Herrrikako mobilizazio horien ostean, Durangon elkartuko dira manifestariak, 13:00etan. Landako Gune ondoko tximinian ipini dute hitzordua, eta *Eremu guztietan prekarietatea borrokatu* izango da lema. Oharrean aurreratu dutenez, Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusiak parte hartuko du ekitaldian.

Lantokietan hainbat baldintza bermatzea eskatu du LABek prentsa deialdian: 35 orduko lan astea, 1.200 euroko gutxienezko soldata, aukera berdintasuna, laneko osasuna eta euskararen erabilera.



Ipuin laburren iazko sari banaketa ekitaldiko unea.



GUKAK Andra Mariko elizpean antolatutako ekitaldia.

EUSKARAK
365
EGUN

Ipuin laburrik onenen sari banaketa ekitaldia eguztenean, Plateruenean

Ekitaldia 20:00etan hasiko da eta luntxa egongo da bertaratzen direnentzat

DURANGALDEA

Berbaro Taldeak azaroan abiatu zuen ipuin laburren lehiaketako irabazleak datorren eguztenean jakingo dira, 20:00etatik aurrera Plateruena Kafe Antzokian egingo den ekitaldian.

Epaimahaia askotariko sormen eremuetan dabilen Durangaldeko hiru lagunek osatu dute: Irati Eguren ilustratzaile durangarrak, Arkaitz Callado *Itsua* musikari durangarrak eta Lehiar Elorriaga argazkilarri zaldibartarrak. Sari banaketan ere protagonismo berezia izango dute. Bakoitzak sari bat

banatuko du eta, horregaz batera, beren arloko sormen lan bat emango diote irabazleari.

Honakoak dira banatuko diren hiru sariak: 14-16 urte arteko ipuinik onenak tableta eta liburu sorta jasoko du; gainerako biek (17 urtetik gora Durangaldeko ipuinik onena eta Twitter bidezkoa) 100na euro eta liburu sortak jasoko dituzte. Liburuak Hitz, Urrike eta Arteka liburu dendek emandakoak dira.

Platerueneko sari banaketa ekitaldia irekia izango da, eta ekitaldi ostean luntxa egongo

da bertaratzen diren lagun guztientzat.

Aulkiak euskararen isla

GUKA euskalgintzako bilguneak egindako deiari erantzunez, Andra Mariko elizpean aulkien joko kooperatiboan parte hartu zuten hainbat herritarrek joan zen egunean, Euskararen Nazioarteko Egunean. ‘Zertarako aulkiak, erabiltzen ez baditugu?’, galde-tu zuten. Euskararen erabileraren metafora izan ziren aulkiak: Zertarako euskara, erabiltzen ez badugu?

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI
DIAZ
EAJ



Lehenik Euskadi

Ez naz, ba, galduko bide baterretan. Ez. Gaurkoan, irakurle estimatua, artez joko dot, eta zuzenean zure botoa eskatuko deutsut EAJ-PNV-ren alde. Badakigu, jakin be, aurrean daukaguzala Gorte Orokorrak aukeratzeko Hauteskundeak. Hau da, Madrilen gure ordezkariak nortzuk izango diren eta berarek gure nahien defentsa zelan egingo daben erabakitzeke abagunea izango dogu. Nik neuk ez daukat zalantzarik: EAJK hainbat eta hainbat urte emon ditu Euskadiren defentsan, gure artean eta gure mugetatik hartarago, bai Bruselan, bai Madrilen, bai eta gure nortasun nazionalak eta gure beharrek babesa behar izan daben toki guztietan ere. Mundu zaballean. II. Errepublikan eta Frankismoan, erbestean, klandestinitatean eta Demokrazian. Beti. Edonon. Ezker Abertzaleak hauteskunde orokorrak boikoteatu eta gu, hauteskunde orokorretan parte hartzearen, “espainolistak” ginela aldarrikatzen ebanean be egon ginen. Ondo etorriak, bide batez, bide honetara. Bazan garaia!

Garai batzuetan, gure ordezkariak sendoa izan danean, Euskadiko autogobernua indartzeko akordioak lortu izan ditugu. Beste batzuetan, aurrerapausoak lortzea baino, gure eskubideekin atzerapausorik ez egotea izan da ordezkari lanik handiena. Baina hantxe egon dira, gau eta egun buru-belarri lanean Euskadiren alde. Euskadi, abiapuntua eta helburua. Lehenik Euskadi.

DURANGALDEA ASTEON

Ekintza solidarioak Durango Kirolak-en

DURANGO > Abenduaren 12an, spinning maratoi solidarioa burutuko dute, Zumba maratokia 19an, eta areto-futbol txapelketa, abenduaren 23, 26 eta 27an. Era berean, janari bilketa egingo dute kiroldegian urtarriaren 7ra arte. Ekimen horietan batzen duten dirua Angelman Sindromearen Elkarteari eta JAEDi emango diote.

Umeen iritziak jolasparkeei buruz

OTXANDIO > Herriko jolas-parkeen inguruan gogoeta egiteko, eta herritarren iritzia jasotzeko, hitzordua ipini dute, gaur, Otxandion. HEZI haur, nerabe, guraso, irakasle eta herritar taldeak antolatu du berbaldia. Parke eredu berriak aurkeztuko ditu Txusma Azkona unibertsitateko irakasleak, gaur, 18:30ean, kultur etxean.

Mari Domingiri eta Olentzerori gutunak

BERRIZ > Olentzerori eta Mari Domingiri idatziriko gutunen lehiaketan postalak, marrazkiak edo irudiak aurkeztu ahaliko dituzte LHko ikasleek, gutxienez 100 berbako idazlanak DBHkoek, eta 200 hitz baino gehiagokoak 16 urtetik gorakoek. Abenduaren 18ra arte, udaletxeko Olentzeroren postontzian jasoko dituzte.

IRITZIA

50 (25)

Aurten Durangoko Liburu Azokak 50 urte bete ditu, eta horietatik erdiak saltokiaren beste aldean bizi izan ditut. Beraz, hastapenetan ez, baina Sarrik idatzi duen bezala, Globalizazio Arotik hona lekuko zuzena izan naiz. Urteetako testigantza honetaz baliatuz, ez nuke esango Azoka hainbeste aldatu denik. Nire ustez, digitalizazioak ekarri dituen abantaila eta desabantailen aurrean bere bidea egiteko gai izan da, liburu eta disko azoka zena sortzaileen topagune eta erakusleho ere bihurtuta.

Oro har, euskalgintzan giro negatiboa sumatzen badute ere, Durangoko Azokaren kasuan baikorra naiz. Euskal Herriko erreferente

kultural garrantzitsua izanik, hurrengo urteetan ere sendo jarrai dezan arrazoiak ikusten ditut.

Alde batetik, euskal kulturaren txikitasunak –ez naiz kalitateaz ari– eta geografia hurbilak, lauzpabost egunetan arlo desberdinetako adierazpide esanguratsuenak bildu eta taularatzeko aukera ematen du. Bestalde, euskaltzalea oro har kultura zalea da. Besteak beste, kulturak ematen diolako euskaraz aritzeko ekosistemarik egokiena.

Ezin esan gabe utzi Durango, eta batik bat Durangaldea, horrelako jarduera baterako oso eremu aproposa dela. Zergatiak asko dira eta horiek zerrendatzea hurrengo baterako utziko dut.

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tariteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Xabier Irujo | Nevadako (AEB) Euskal Ikerketetarako Zentroko zuzendarietako bat | Caracas (Venezuela), 1967

“40 urtez ukatu izan dute Euskal Herrian gertatutakoa”

‘Memoriaren Ibilbideak’ txostenean jaso diren 600 bonbardaketa baino gehiago zenbatu eta erregistratu ditu Nevada bizi den historialariak

> BERBAZ Aitziber Basauri ‘Memoriaren Ibilbideak. Gerra Zibilaren memoriarekin lotutako espazioen zerrenda’ aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak. 1936ko gerrak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eragindako ekintza eta gertaera nagusien bilduma egin dute. Lana osotu duen Biografiy & Parliament ikerketa taldeko kidea da Xabier Irujo. Urteak daromatza Euskal Herriko historia eta 36ko gerrak eta ondorengo diktadurak utzitako arrastoak ikertzen.

‘Memoriaren Ibilbideak’ txostenak Euskal Herrian egin ziren bonbardaketei buruzko zure ikerketa jasotzen du.

Hamar urte dira Gernikako bonbardaketa ikertzen hasi nintzela. Hura planifikatzera heltzeko, aurretik beste hainbat bonbardaketa egin ziren. Atzetik logika bat zegoela konturatu, Euskal Herriko bonbardaketen nolabaiteko atlasa eraikitzen hasi nintzen. Lan horretan zortzi urte neramatzala, txostena egiteko eskatu zidaten, eta, orain arte, 600 bonbardaketatik gora erregistratu ditut. Azpimarratzekoa da ikerketa amaitu gabe dagoela, eta horrela jarraituko duela; ez da eta erraza, esaterako, artxiboko materiala lortzea. Asko galdu egin da eta beste asko oso barreiatuta dago: gutxienez 35 artxibotan egon naiz, zazpi herrialdetan.

Amaitu bako zerrenda den arren, 600 bonbardaketatik gora zenbatu dituzu. Bai, eta bakoitzari buruzko in-

formazio apur bat ere jaso dut; nagusiki beste ikertzaile batzuk jakin dezaten non aurkitu duan informazioa, eta eurek ere tira egin dezaten. Auskalo, urte batzutura gehiago jakingo dugu bonbardaketa batzuri buruz. Badago lana egiteke. Hemendik aurrera bonbardaketa bakoitzaren nortasuna aztertu dezakegu; erasoen izaera anitza da.

1936 eta 1937 urte arteko gertaeretan jarri duzue begia. Otxandiokoa izan zen zibilen kontrako lehenengo bonbardaketa.

Izugarrria izan zen. Hegazkin bik bonbardatu zuten. Herritarrei propaganda botako zutela sinistaraztea izan zen logika; horregatik da hain latza. Leku batzuen arabera, paper batzuk bota zituzten Andikona plazara, eta horrek ume ugari erakarri zuen. Han zeudela egin zuten eraso. 70 metreri buruz ari gara; oso ondo ikusten zen nor erasotzen zuten. 60 lagunetik gora hil ziren; gehienak umeak edo oso gazteak. Bonbardaketa hartan Angel Salas Larrazabalek parte hartu zuen, eta haren anaiak Gernikako bonbardaketari buruzko liburua idatzi zuen. Horrek erakusten du nola egingen den historia ikuspegi horretatik, guztiz desbirtuatua.

Durango eta Elorrio etorri ziren gero. Estrategia berdina jarraitu zuten?

Izu-bonbardaketak izan ziren haiek. Milizia izutu eta errendizioa eskatzea zen helburua. Eusko Jaurlaritzak suntsitza, errenditza, espero zuten. Ez

zen gertatu. Elorrioko mendietan, egun bakarrean 60 tona bomba jaurti zituzten. Bonbardaketa gogorrena izan zen. Gernikakoa, berriz, esperimendua izan zen; estrategia hori, Varsovian (Polonia), Rotherdamen (Britaina Handia) eta Stalingradon (URSS) ere erabiliko zuten. Hala ere, izu-bonbardaketa izan zen hura ere. Arratsalde hartan, hiru ejerzitoei (Espainiakoak, Italiakoak eta Alemaniakoak) Jaurlaritzaren errendizioa eskatu zuten. Francok penintsula osoan zuen abiazioaren %20 erabili zen, eta hiru ordu eta erdiko bonbardaketa bakarrean 2.000 lagunetik gora hil ziren, kalkulua arrazionalen arabera. Hala ere, oso zaila da jakitea zenbat hil ziren. Esan bezala, badago lana egiteko; Durangon hildakoen %17 dago identifikatu gabe.

Bonbardaketa guztiak genozidio fisiko kanpaina baten parte izan zirela diozu.

Batzuk ukatzen saiatu arren, horrela izan zela dioten agiriak ditugu. Genozidioa luzaroan mententzen den kanpaina bat da; bonbardaketa bat, aldiz, bera bakarrik, ekintza estrategikoa. Mola jeneralaren arabera, oso aberatsa zelako eta industria indartsua zuelako zen abertzalea, euskaltzalea eta euskalduna Euskal Herria; Bizkaia, batez ere. Horregatik, industria eta hiriak suntsituta, behin eta berriro bonbardatuta, industria txikitzea lortuko zuten, eta Euskal Herriaren nortasun kolektiboa birrintzea ere bai. Horrek bihurtzen du genozidio fisiko kanpaina.



Desmemoria edo memorizidio estrategia oso bizirik egon dela diozu.

40 urtez ukatu da Euskal Herriaren gertatutako. Nazioartean, Gernikan gertatutako ezeztatzen lehenengoa Ribbentrop izan zen, Alemaniako enbaxadorea Londresen. Atzetik beste hainbat etorri ziren, eta ukazio hori egia ofiziala izan da Espainian, 40 urtez. Franco hil ostean, korrante erredukzionista sortu zuten horrek. Hori guztia memorizidioa da; memoriaren errausketak edo heriotza.

Horri aurre egiteko tresna izan daiteke landutako txostena. Bai, baina bi-hiru belaunalditan

jarraitu beharko dugu lanean memorizidio horri aurre egiteko. Ukazio korrante hori genozidio kanpainako zati integrala da, eta hezkuntza da horren kontrako txerto nagusia.

Memoria historikoa berreskuratzeko lanean dabiltzan hainbat eragileren jarduerak ere batu dira.

Bai. Zorionez gero eta gehiago dira gainera, eta izugarri garrantzitsua da horiek egin dezaketena. Inoiz ez da bukatuko lan hori. Ez dago liburu borobil bat, eta berdin dio zenbat urte eman bonbardaketa bat ikertzen; beti irtengo da zerbait berria.

hitz #gomendioak
 artekalea 14, durango
 946 810 776
 info@hitzliburudenda.com
 liburudenda

HELDUENTZAT DUBLINDARRA
 Alfonso Zapico (2015)

UME ETA GAZTEENTZAT BARATZE EKOLOGIKOKO BIZITZA
 A.L. Giner & M. Martinez (2015)


MUSIKA UR GOIENA, UR BARRENA...
 Olatz Zugasti (2015)

URTXINTXA
 HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
 Tel.: 94 681 43 85



Argazkia: Katxo Bitxo.

Grooving Lines taldeagaz dator Dani del Valle Plateruenera

Durangoko Plateruenera abenduaren 18ko jazz musikaren emanaldia zabalduko dute Dani del Valle gitarrista durangarrak eta bere lau taldekideek

> MUSIKA I. Esteban

Dani del Valle (Durango, 1991) gitarristaren Grooving Lines taldea gonbidatu dute Durangoko Plateruenera abenduaren 18ko jazz musikaren emanaldia zabalduko dute. Del Valle durangarragaz batera, Santiago Fernandez tronpetistak, Imanol Iribar tronboi-jotzaileak, Joanes Ederra baxu-jotzaileak, eta Martin Holand bateria-jotzaileak osatzen dute Grooving Lines taldea.

Datorren urtean amaitzea espero duen musika ikasketak egiten dabil Dani Del Valle Musikenen, eta hain zuzen ere, Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegi horretan ezagutu zituen taldekideak: “Aspalditik elkar ezagutzen dugun arren, aurten elkartu gara taldea sortzeko”, azaldu du Del Valle.

Jazzeko abesti ezagunak zein taldekideen konposizioak uztartuko dituzte datorren barrikuko Durangoko kontzertuan.

Lehenago ere aritua da Del Valle Plateruenera oholtzan. Kontatu duenez, ahal duen guztietan parte hartzen du kafe an-

tzokiko inprobisazio saioetan. Bere ustez, horretarako “leku ezin hobea da Plateruena”.

Jazzeko abesti ezagunak zein taldekideen konposizioak eskainiko dituzte Durangon

Santiago Fernandez, Imanol Iribar, Joanes Ederra eta Martin Holland dira Del Valleren taldekideak

D. Del Valle: “Aspalditik elkar ezagutzen dugun arren, aurten elkartu gara Grooving Lines taldea sortzeko”

Plateruenera Greatest Hits Gauean ere parte hartu izan du Del Valle, eta bere beste tal-

deagaz, Shinovagaz, ere jo izan du antzokian. Durangon ezezik, Euskal Herrikan kanpo ere kontzertu asko eskaini ditu azken aldian talde horregaz.

Neketsua bezain aberasgarria da, musikari durangarren berbetan, Shinovarekin egin duena bezalako birak egitea: “Alde batetik, nekagarria da furgonetagaz Cadizera arte joatea, esaterako, baina, orohar, esperientzia ezin hobea da”. 2014 hasieratik dihardu Del Valle Shinova taldean gitarrista.

Rock talde horretako bere esperientziak galdetuta, beste edozein musika arlotan bezala, gakoa “besteak kontuan hartu eta entzutea” dela dio Del Valle. Jazzari loturiko arloetan ezezik, Musikenen bestelako estiloetan jarduteko ere oso baliagarriak diren trebetasunak lantzen dituztela azaldu du durangarrak. Datorren barikuan, 22:00etatik aurrera, jazzean jarduteko bereziki inportantea den komunikazio hori erakutsiko dute Del Valle eta Grooving Lines taldeko lagunek, Durangon.

> ARTEA I. Esteban

Durangoko Arte eta Historia Museoko *Zu hor ta ni hemen* erakusketan bildu ditu Ismael Iglesias artista durangarrak azken urteetako bere lanik esanguratsuenak. Joan zen barikuan egin zuten erakusketaren inaugurazioa, eta hilabetez egongo da Durangoko Museoan.

Ismael Iglesias artistak (Durango, 1974) Jose Julián Bakedano zinegilearen laguntzagaz hautatutako lanak daude erakusketan: 2008 eta 2015 urteen artean egindako lau serietako lanak daude ikusgai: *Abstrakzio zinetikoa*, *Prácticas Bastardas*, *Temp. Files* eta *Strujen* proiektuetako lanak, hain zuzen ere.

Formatu handiko lanak (170 luze eta 270 zabal den *Abstrakzio zinetikoa* seriekoa, kasurako), zein tamaina txikiagokoak daude bilduman. Askotariko material eta teknikak baliatuz egindakoak; badaude oihalean zein argazki gainean akrilikoz egindakoak, *Prácticas Bastardas* seriea bezala fujicolor materialean egindakoak, aluminio gainean olio-pinturagaz margo-

tutako *Temp. Files* bildumako lanak, eta teknika mistoagaz egindako *Strujen* seriekoak.

Bakedanok erakusketaren katalogorako idatzi duen testuan azaltzen duenez, “Iglesiasen ikerketarako eta esperimentaziorako grina” islatzen dute Durangoko Museoan bildutako lanek. Baita, bere ibilbide guztian zoria probokatu eta kontrolatzeko Iglesiasen egin dituen saiakerak ere. Diziplina anitzeko artista da durangarra, eta Bakedanoren berbetan, konformismotik aldentuta, “obra ludiko eta grinatsua” sortu du.

Iglesiasen Jose Julián Bakedano zinegilearen laguntzagaz hautatutakoak dira erakusketako lanak

Arte Ederretan lizentziatu zen Ismael Iglesias, pintura eta ikus-entzunezko espezialitatean, eta azken urteotan atzerriko hainbat lekutan egin ditu egonaldiak eta erakusketak.

Ismael Iglesiasen ibilbidea, ‘Amén, zu hor ta ni hemen’ erakusketan

Iglesiasen 2008tik sorturiko artelan esanguratsuenak daude Durangoko Museoan, ikerketarako eta esperimentazirako bere grina islatzen dutenak



Durangoko Arte eta Historia Museoko bi gelak hartzen ditu Ismael Iglesiasen erakusketak.

> ANTZERKIA I. Esteban

Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan ikusleen saria (600 eurokoa) jaso du Gorakada Abadiño antzerki taldeak, *Moby Dick* antzezlan berriagaz. Euskarazko antzerkigintzaren topaketa horren 33. edizioa egin dute urrian eta azaroan, Azpeitian. Lau astean 19 antzerki emanaldi izan dira bertan, eta 300 ikusletik gora elkartu dira antzerki saio bakoitzean.

Sei urtetik aurrerako ikusleei zuzenduriko antzezlan da 'Moby Dick', Gorakada taldearen lan berriena

Sei urtetik aurrerako ikusleei zuzenduriko obra da Azpeitian saritu duten Gorakadaren *Moby Dick*, eta Herman Melville idazle estatubatuarrek XIX. mendean idatzirikoa literaturako klasikoak du oinarri.

Ismael protagonistak balea zuria harrapatzeagaz obsesionatuta dagoen Acab kapitainaren Pekode itsasontzian bizi dituen abenturak kontatzen ditu obra horretan Gorakadak, "elementu



Herman Melville idazle estatubatuarrek XIX. mendean idatzirikoa lana du obrak oinarri.

Gorakadaren 'Moby Dick' saritu dute Azpeitiko antzerki jaialdian

Ikusleen saria jaso du Gorakadak Azpeitiko XXXIII. Euskal Antzerki Topaketetan

eszenikoak, erritmoa, umorea eta musika" baliatuta.

Julio Salvatierrak moldatu du testua Gorakadarentzat, Alex Díaz abadiñarrak ekoitzi eta zuzendu du, eta Aritza Rodriguez zaldibartarragaz batera, José Cruz Gurrutxaga eta Eriz Alberdik dihardute aktore lanetan.

Jose Cruz Gurrutxagak eta Eriz Alberdik dihardute aktore lanetan, Aritza Rodriguez zaldibartarragaz

Azaro hasieran eskaini zuten *Moby Dick* antzezlan Berriko kultur etxean, eta datorren asteburuan Durangon egongo da aukera Gorakadaren antzezlan berriaz gozatzeko: abenduaren 19an, 17:00etan, hasiko da emanaldia San Agustin kulturgunean.

Iurretaren eta iurretarren memoria bisuala biltzeko ekimena

> ARGAZKIGINTZA I. E.

Iurretarren etxeko argazki albumetako irudiak batzeko ekimena ipiniko dute, datorren astean, martxan. Leo Simoes Iurretako argazkilaria eta Ros Boisier kideak abiatu dute proiektua, eta XX. mendeko Iurretaren memoria bisuala osatzeko du helburu. Abenduaren 14tik 24ra arteko epea egongo da iurretarren euren familia albumetako argazkiak Ibarretxe kultur etxera eramateko. Digitalizatu ostean, jabeak bueltatuko dizkiete originalak, eta liburutegian ipiniko dute bildutako materiala erakusketan.



Zuri-beltzekoak dira 12 argazkiak.

> ARGAZKIGINTZA I. E.

Elorrion bizi den Marta Lopez galiziarraz dihardu Zaloa Fuertes argazkilaria abadiñarrak Z&M izeneko proiektuan. Argazkilaria zein modelo lanetan, elkarlanean sortu dituzten dozena bat argazki ipini dituzte Durangoko Napozt tabernako erakusketan, bi hilabeterako. Emakume gorputzen irudiak dira *Bera* erakusketakoak, zuri-beltzeko argazkiak.

MUM (*Mujeres Unidas contra el Maltrato*) elkarteari eskaini dizkiete egileek erakusketan dauden hamabi argazkiak. Iru-

di horiekin egutegi bat osatuko dute, eta egutegiaren salmentagaz lortzen duten dirua elkarteari emango diote. Z&M-ren face-

Mujeres Unidas contra el Maltrato elkarteari eskaini dizkiete egileek erakusketan honetako 12 argazkiak

bookeko orrian, zaloa.martuka@gmail.com helbidean, zein Napozt tabernan ere eskuratu ahalko da egutegia.

GEURE DURANGALDEA**ANTTON URIARTE**

Musikaria

**Aje kulturala baino ez balitz...**

Gomendagarri ez da izan ohi... baina noan erlauntza zirikatzen ahalegintzera. Eta nahi duenak zizta nazala; ondo etorri, erle hotsa!

Azoka egunen ajeak gobernatzeko izaten den aste honetan, nago biharamunak gurean badauzkala hamaika aurpegi. Ai... aje kulturala baino ez balitz!

Egunotan (urteko gainontzeko larunbat edo parranda egunak sartzea ere balekoa litzateke) gauzez tabernetan izan denak —gure sozializazio plaza nagusiak dira, bide batez—, ikusi ditu barrak jendez lepo; tabako usaina jantzita etxeratu gara, eta komun ultrapopulatueta pixa egiteagatik *rara avis* sentitu. Jakin nahiko nuke euskal argitaletxeek baino zenbat diru gehiago mugitu duen trapitxeroak azken astean.

Ez gaitu kezkatzen orotariko drogak (tabakoa eta alkoholetik hasita), egunero ogi izatea ez da guretzat arazo, biharamunak (ez soilik literalak!) ez du gurean ardura, eta gustura bizi gara askatasun dependientean.

Ez dakit burujabetza kolektiboaren gaiarekin itsutu, eta darabilgunaren erabilera burujabeaz ahaztu ote garen.

Izango naiz atzerakoa edota zuzentasunaren abanderatua askoren begietan, baina kate eta arauak apurtzearen fan garen jendarte honetan, ez dakit borondaterik legoken sozializazioari erroturiko asoziazioen tabua mahai gainera ekartzeko.

Una casa de muñecas
Teatro Arriaga

Abenduaren 12an
20:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

ABENDUAK 18
22:00etan
JAZZ KONTZERTUA

ABENDUAK 19
22:00etan
LOKALETIK AT LEHIAKETA

ABENDUAK 27
18:30etan
KANTALDIA

Egin zaitez Anbotoren Lagun, eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke, eta gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:



DESKONTU BEREZIAK



A-METZ DEKORAZIOA

> -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.

> - %10 altzari eta osagarrietan.



BETIXU JATETXEA

> - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

> -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.

> -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

> -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

> -%10 sarreran.



GONZALO MANCISIDOR BITXI-DENDA

> -% 5 produktu guztietan.



HITZ LIBURU-DENDA

> -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

> -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

> -%5 lehenengo erosketan.

> -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

> -% 10 eskola eta bulego materialean.

> -%5 musika, opari eta liburuetan.



LANDAKO OPTIKA

> -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.



LAPIKO JATETXEA

> Eguneko menuan kafea doan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

> -% 10 Dippner oinetakoetan.

> -% 15 Euskal Herriko produktu ekologikoetan.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

> Bosgarren gosaria doan.

> Plateruenak antolatutako ekitaldietan bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

> Azterketa eta bi erradiografia doan.



UNDARRI BIKE

> -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorroztu.

> -%10 bizikletentzako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

> -%5 liburuetan.

> -% 10 papergintzan.

ABANTAILAK

> Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.

> Hilero egingo diren zozketetan parte hartzeko aukera.

> Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



“Ederra izan da 50. Durangoko Azoka hau ere; borobila, benetan eraginkorra”

Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidentek eta guneen arduradunek azokaren balorazioa egin dute

> BALORAZIOA J.G./I.E.

Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidentek martitzen goizeko prentsaurrekoan azaldu zuenez (beraz, egun horretako emaitzak zenbatu barik), bari-kutik astelehenera, 120.000 bisita jaso zituen Landako Guneak.

Pozik agertu zen Nerea Mujika Durangoko 50. Azokaren balorazioa egiteko prentsaurreko horretan: “Ederra izan da 50. Azoka hau ere; borobila, benetan eraginkorra”.

Landako Guneak bisitari kopuruaz gainera, bestelako hainbat datu ere azpimarratu zituen Gerediagako presidentek: 30.000 bisitari jaso dituela azokaren webguneak, 250 kultur ekitaldi burutu direla, 350 nobedade aurkeztu direla, 72 lagunek parte hartu dutela boluntario programan...

Guneen arduradunek ere hartu zuten berba azokaren balorazioa egiteko. Azpimarratu zuten, haur eta gazteak biltzen dituen Saguanbara gunea bete egin dela programatutako emanaldi guztietan; Areto Nagusian atondu duten Gogoetaren Plazan “hausnarketa mamitsuak” izan direla; Ahotseneako solasaldien leku aldaketak bertako jarduerak harrera “beroagoa” izatea ekarri duela; Irudienean gogoetak eta eztabaidak izan duten lekuagaz eta gazteen parte-hartzeagaz bereziki pozik daudela; San Agustin kulturguneko Szenatokia gunean oso giro polita sortu dela sortzaile eta publikoaren artean; Plateruena eguerdi eta gauetan lepo bete dela; eta Kabi@ eta Azoka TB ere egonkortu direla 50. Durangoko Azoka honetan.

Berba hauekin deskribatu zuen Mujikak 50. Azoka: “Sortzaileen eskaintza aldetik ugaria, ekoizpenean aberatsa, egun askokoa, orekatua jendearen ibiliari dagokionez, ondo antolatua, erakargarria komuni-

katiboki, emozioz betea bere sortzaileak omenduz, mamitsua gogoeta arloan, eta etorkizunari begira jarria: belaunaldi gazteei begira jarria”.

Hain zuzen ere, belaunaldi gazteei begira zera aipatu zuen:

“Durangoko Azokarentzat eta euskal kulturarentzat ezer estrategikorik badago, hori belaunaldi berrietako euskaldunak zaletasunaren, sorkuntzaren eta eragiletzaren ardatzean ipintzea da; parte hartu, parte izan eta parte eman dezaten. Zale berriak, sortzaile berriak eta eragile berriak behar ditugu”. Etorkizuneko azokak, orain artekoek lez, bere baitan beharko ditu “herri-ekimena eta borondatezko lana; sortzaileak eta industria; eta herri-erakundeak eta alderdiak”.



Martitzen goizean eskaini zuten agerraldian egin zuten aurtengo azokaren balorazioa.

Ibsenen ‘Una casa de muñecas’ obraren moldaketa eskainiko dute

Zornotza Aretoan izango da emanaldia, gaur, eta San Agustinen, bihar

> ANTZERKIA I.E.

Abenduaren 11n (21:00etan) Zornotza Aretoan, eta 12an Duran-

goko San Agustin kulturgunean (20:00etan) egongo da Bilboko Arriaga antzokiak ekoitzi duen

Una casa de muñecas antzez-lana ikusteko aukera. Henrik Ibsenek 1879an estreinatu zuen

antzez-lana da, asteburuan Durangaldeko bi antzokitik ikusgai izango denaren oinarria. Zoriontsuak diruditen senar-emazte bi dira Ibsenen bertsiorekin protagonistak. Familian menpeko papera betetzen duela ohartzen denean, baina, etxetik alde egiten du obra klasikoaren emakumezko protagonistak.

Ibsenen *Una casa de muñecas* eszenaratzeko entseguetan dabilen aktore taldearen bitartez, istorio hori gaur egunera ekarri du Pako Revuelta zuzendariak. Aktore talde horren paperean dihardute Enriqueta Vega, Ramón Ibarra, Josu Kamara, Eneritz Artetxe eta Natxo Gomes aktoreek.

Hasieran, zailtasun berezirik bakoa zirudien obra prestatzen dabiltzala, pertsonaia horiei sortzen zaizkien arazo eta kontraesanen kontakizuna da Arriaga antzokiak ekoitzi duen *Una casa de muñecas*.

XIX. mendeko obra klasikoak abiapuntu hartuta, antzerkiari buruzko hainbat gogoeta plazaratzen ditu Pako Revuelta zuzenduriko antzezlanak. Besteak beste, XXI. mendeko antzerkigintzan, oraindik ere emakumezkoen errealitate eta arazoei buruzko antzezlanak gizonezkoek idatzirik izaten direla sarritan, edota antzokien programazioa kudeatzen dutenak ere gizonezkoak izaten direla, gehienetan.



Josu Kamara, Enriqueta Vega, Eneritz Artetxe, Ramon Ibarra eta Natxo Gomes aktoreek dihardute antzezlanean.



Aranguren eta Salaberria promesen arteko lehia, Olazarreko finalerdietan

Atzo hasi ziren Olazar txapelketako finalerdiak, eta datorren egunean jokatu da bigarren jardunaldia



Errandonea izan zen atzoko jaialdiko protagonistetako bat. Maialen Zuazubiskar

> PILOTA J. D. / M. O.

Zaldibarko Olazar pilota txapelketa azken txanpan sartu da, dagoeneko. Final-laurdenetako neurketak amaituta, atzo jokatu ziren lehenengo finalerdiak, eta datorren egunean izango da bi-

garren saioa. Abenduaren 31n jokatu diren finalerdiak erabakigarriak, beraz. Egunean, hilaren 17an, Aranguren eta Salaberria promesen arteko 4 t'erdiko lehia ikusteko aukera egongo da, besteak beste.

Iluntzeko 21:30ean hasiko da pilota jaialdia.

15 eta 16 urte dituzte Aranguren eta Salaberriak, hurrenez hurren. Oso gazteak dira oraindik, baina afizionatu mailan lekua hartzen dabilta.

Aranguren maila nabarmendu du Enrike Agirrebeitiak, txapelketako antolatzailetako batek: "Hain gazterik ezagutu dudan afizionaturik onena da". Aginagakoa (Gipuzkoa) da, eta, aurten, Zornotzako masterra irabazi du, adibidez.

Edozelan ere, lehia "oso es-tua" aurreikusten du Agirrebeitiak. Gogoratu du, elkarren aurka duela hiru bat hile jokatu zutela azkenengoz, eta, orduan, 22-21 irabazi zuela Aranguren.

Binaka ere, parean

Binakako finalerdia ere parean ikusten du Agirrebeitiak, %50eko aukeragaz bikote bakoitzarentzat. Urbieta-Martija eta Arteaga-Erasun ibiliko dira aurrez aurre. Urbieta aurrelari beteranoak joko segurua lantzen du, baina beste aldean, Erasun atzelariak eragin handiagoa eduki dezake tantoak agintzerako orduan.

Atzo, lehen finalerdiak

Atzo iluntzean jokatu zituzten lehenengo finalerdiak, ANBOTOren edizioa itxi eta ge-

ro. 4 t'erdikoan, Zubizarretaren eta Egigurenen arteko norgehiagoka zegoen programatuta, eta binakakoan, Azpiri-Imaz eta Errandonea-Martinez bikoteen artekoa.

Harrera ona

Agirrebeitiak dioenez, final-laurdenetan jendearen partetik harrera ona izan du txapelketak. "Oso ondo joan da orain artekoa; jende asko etorri da, eta partiduak ere onak irten dira".

Binakako finalerdia

ere parean ikusten du Agirrebeitiak, %50eko aukeragaz

Agirrebeitiak dioenez,

final-laurdenetan jendearen partetik harrera ona izan du txapelketak

Orain, azken errematearen atarian dago txapelketa, eta seguru pilota partidu biziak ikusi ahaliko direla. Etorkizuneko pilotari promesak eta afizionatu mailan sendo dabiltzanak ikusteko aukera ezin hobea egongo da, Zaldibarren. Abenduaren 31n erabakiko da zeinek jantziko duen txapela.

Zulotik irteteko, garaipena behar du Zornotza saskibaloit taldeak

Bihar arratsaldean, Getafe azken sailkatuak bisitatuko du Larrea kiroldegia

> SASKIBALOIA J.D.

Zornotza saskibaloit taldeak lau porrot daramatza bata bestearen atzetik, eta bolada txar horrek sailkapeneko zulara eramanez ditu. Azken-aurreko

daude, hiru garaipen eta zazpi porrotekin. Viten Getafe taldea bakarrik dute atzetik, eta, hain zuzen, talde horrexen bisita jasoko dute, bihar, 18:30ean, Larrea kiroldegian.

Egia da, sarritan, baja askorekin egoten direna. Besteak beste, taldeko hiru jokalaririk Bilboko Basketekin entrenatzen dira. Joan zen asteburuan, esaterako, Mendiaren eta Aboucarren hutsuenak izan zituzten Malagara egindako bisitan. Biak ACBko Bilbao Basket saskibaloit taldeak deituta zeuden. Hala ere, ematen ari dena baino gehiago emateko kalitatea du taldeak. Malagan biko baino, hiruko saiakera gehiago egin zituzten, ez oso portzentaia onekin (9/34). Gainera, erraztasun gehiegi eman zituzten defentsan.

Horregatik, garaipenak baino ez dio balio asteburuan Madrilgo taldearen kontra, gaur egun bizi duen estuasunetik irteten hasi gura badu.



Sarritan, hainbat baja izan dituzte partiduei aurre egiteko. Zornotza S.T.

Kulturalaren gutun ironikoa lapurrei

Tabiran lapurretan sartu ostean argitaratu zuten

> FUTBOLA J.D.

Durangoko Kulturalak jokatzeko duen Tabira futbol zelaiko azpiegiturara lapurrak sartu ziren abendu hasieran. Futbol zelaiko tabernatik eta klubeko bulego bietatik loteriako dirua, arropa, bulego materiala, telebista bi, berogailu bat eta telefono bat ostu zituzten.

Horren ostean, klubak gutun ironiko bat argitaratu zuen bere webgunean lapurrari edo lapurrei zuzenduta. Lehenengo eta

"Hurrengoan abisatu, eta zure arazo eta kezkei buruz solasean ariko gara", eskatzen diote lapurrari

behin, lapurrak "merezi zuen harrera" egin ez izanaz penatzen dira: "Hurrengo batean, abisatu, eta zure arazo, kezka eta abarrei buruz solasean ariko gara".

Ostutako diruagaz, bere ingurukoei "denboraldi batez jaten emateko nahikoa izango duela" espero dute, eta ostutako telebista biek pelikulak ondo ikustea opa diote.

Antzerako beste hainbat desioen ostean, ironia albo batera utzi, eta mezu zuzen batekin amaitzen dute gutuna. Egin duenagaz, "klub apal bati kalte egitea besterik ez du lortu, zeinaren helburua pertsonak heztea den, zure moduko bizitzara emanak egon ez daitezen eta denekin adeitsuak izan daitezkeen batez ere, euren buruarekin".

Arte martzialen opena egingo dute bihar Abadiñon, 100 borroka baino gehiagogaz

Sarrera doakoa izango da, eta beharra dutenentzako janari eta produktu bilketa egingo dute



Abadiñoko Fexmack klubeko 17 parte-hartzaile izango dira biharko openean.

> ARTE MARTZIALAK J.D.

Abadiñoko FexMack elkar-
teak arte martzialen gaineko
lehenengo opena antolatuko du
bihar, Zelaietako probalekuan.
Mailaz maila 100 borrokalditik
gora ikusteko aukera egongo da.

Eguerdiko 12:00etatik aurre-
ra tatami gaineko borrokaldiak

egingo dituzte semi-light eta
kick-light modalitateetan. Haur
kategoriatik hasita (8-10 urte
artekoak) nagusietara arteko
borrokalariak lehiatuko dira.
Arratsaldeko 17:00etatik aurre-
ra tatami ring bategatik ordez-
katuko dute, eta power style eta,
besteak beste, full contact moda-

litateetako borrokaldiak ikuste-
ko aukera izango dute probale-
kuan batzen diren zaleek.

Biharko openak lehenengo
aldia duen arren, parte-hartze
zabala bermatzea lortu dute.
Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabatik
etorriko dira parte-hartzaileak.
Guztira, 70 lehiakidetik gora

batuko direla kalkulatu dute an-
tolatzaileek. FexMack klubeko
17 kide egongo dira tartean, eta
maila denetan parte hartuko
dute.

Arte martzialen esparru za-
balean sartzen diren modalita-
teak batzen ditu kickboxingak.
Karate, taekwondo eta kunfu
lako borroka estiloetatik garatu
dira semi contact eta light con-
tact modalitateak, besteak beste.
Beraz, askotariko arte martzia-
len teknikak ikusteko aukera
egongo da bihar.

Ekimen solidarioa

Udalaren laguntzagaz antolatu
duten openari ikuspegi soli-
darioa eman gura izan diote:
“Ekimena eskualdean beharra
dutenei laguntzeko ere baliatu
gura dugu”, adierazi du Mack
Tirado Abadiñoko klubeko gi-
daria. Horrela, Durangaldean
beharrean daudenei laguntze-
ko, lehentasunezko premiak
asetzeko higiene produktuak
eta janaria batuko dituzte. Ope-
nerako sarrera doakoa da.

Antxiak jantzi du txapela faborito zenari irabazita

Trinketean Tornosolo Kopa irabazi du abadiñarrak



Ander Antxia, txapela buruan duela sari banaketan, Mikel Gonzalezen ondoan.

> TRINKETA

Azken urte bietan ezusteko ira-
bazleak izan ditu Tornosolo
Kopak. Iaz Inhar Ugartek Ander
Antxiari irabazi zion finaleko
aurreikuspenak apurtuta; aur-
ten, Antxiak berak jantzi du
txapela, faborito izan den Mikel
Gonzalez menderatuta.

Joan zen barikuan jokatu zu-
ten finala Abadiñoko Tornosolo
trinketean. Iazko finalak utzi-
tako zapore gazia ezitza lortu
zuen Antxiak. Batak eta besteak
gaur egun duten maila kontuan
hartuta, abadiñarrak hobe-
to baliatu zituen bere armak.
Biek ondo elkar ezagutzen dute.
Gaur egun, Mikel Gonzalez ber-
ritzarrak Ipar Euskal Herriko
trinketerik onenetan dihardu,

baina aurretik sarritan aurkitu
izan dira aurrez aurre pilotari
biak. Antxiak bazekien defentsa
lanean ondo aritu beharko zuela
eta horixe egin zuen: Gonzale-
zen bizitasunari eta erasoei eutsi
eta eutsi egin zien eta aukera

Gonzalez erasoei eutsi
eta eutsi egin zien eta
aukera zuenean tantoa
amaitzen asmatu zuen

zuenean tantoa amaitzen asma-
tu zuen. Azken herenean, tanto
ilara erabakigarria lortu zuen;
29-31tik 39-31ra. Azkena, 40-32,
Antxiaren alde.

ADITUAREN TXOKOA

**JUAN CARLOS
PEREZ**

Areto
futbola



Alferreko gastua

Orain dela denboraldi bi-
tik beharrezkoa da Bizkai-
ko Maila Goreneko entren-
atzaile edo monitore bat
izatea. Taldeetan tituludun
teknikoak gura ditu federa-
zioak, jokalaria zuzentzeko
prestakuntza hobea dutela
iritzita. Asmatu egin dutela
uste dut, eta taldeei horretara-
rako erraztasunak eskain-
tzen bazaizkie, are hobeto.

Aurreko urteetan moni-
tore titulua ateratzeko ikas-
taro intentsiboak egiteko
aukera izateak hainbat dele-
gatu animatu zituen. Baina
aurten ez du jarraipenik
izan, eta, gainera, badago
gauza bat ulertzen ez dudan-
a: Maila Goreneko klubei
laguntzeko, kanpoan joka-
tzen dutenean monitore
daramatenek ez dute delega-
tua aurkezteko obligaziorik.
Honakoa egiten zait uler-
tezina: arau honek ez du
balio emakume zein gizonen
gainerako mailatarako; ezta
gazte mailetarako ere: gaz-
teak, kadeteak... Denetan
derrigorrezkoa da delegatua
aurkeztea, baina ez moni-
torea edo entrenatzailea.
Kategoria horietan moni-
toreen fitxa tramitatu duten
taldeek fitxako 100 euroko
alferreko gastua egin dute
(entrenatzaileen komiteko
alta barne).

Beraz, edo araua katego-
ria denetara zabaltzen dute,
edo hurrengo denboraldian
ez da ez entrenatzailek eta
ez monitorerik egongo behe-
ko mailetan. Delegatuaren
fitxa nahiko bada zertarako
100 euro gastatu...

**Erredakzioan itzulita*

Arriike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

katerin
ardoak
iñaki
uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

EDERTASUN GIDA



Neguan azala ondo zaintzeko aholkuak

Uda asko luzatu da, baina laster batean, hementxe egongo da negua. Azalak sufritzen al du sasoi honetan? Zer egin genezake hori saihesteko?

Ondo babestu.

Temperaturak asko bajatzen dira sasoiotan. Neguko hotzak eta haizeak gure aurpegiko azala kaltetzen dute. Horren aurrean, prebentzio neurri egokiena ondo tapatu, eta azala babestea da.

Kontuz berogailuekin.

Tenperatura aldaketek eragin handia eduki dezakete. Klean hotz, eta barruan bero izaten dugu sarri. Horregatik, berogailuek ez erabiltzea gomendatzen dute adituek. 20 edo 21 gradutik ez pasatzea da komenigarriena.

Hidratatu.

Udan lez, hidratatzea beharrezkoa da azala osasuntsu mantentzeko. Crema egokiak erabili, eta ura ere dexente edan, 1,5 litro inguru eguneko. Bestalde, azalerako oso erasokorrak diren xaboiak ez erabiltzea gomendatzen da.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Etorkizunari keinu eginez itxiko du Uztaik hamarkada bi egin dituen urtea

5-8 urte arteko 200 bat gimnasta bizkaitar batuko dituzte Landako kiroldegian



Landako kiroldegiko kantxa nagusian egingo dituzte erakustaldiak.

> GIMNASIA ERRITMIKOA J. D. Durangoko Uztaik taldeak 20 urte egin ditu 2015ean. Hamarkada bi joan dira gimnasia erritmi-koak Durangaldean bere tokia izan dezakeela sinestuta taldea martxan jarri zutenetik. Gaur egun, 150 bat gimnasta dituzte, eta "klaseak beteta ditugu",

Miren Barturen Uztaik taldeko kidearen esanetan. Horieta-ko asko gazte-gaztetxoak dira, 5-8 urte artekoak, eta oraindik ez dute txapelketetan parte hartzeko adinik. Horregatik, jendaurreko erakustaldiak egiteko aukera eskaintzen diete urtero. Aurtengo aldia bihar, 11:00etan,

egingo dute Landako kiroldegian. Orain arte egindako bidea luzea den arren, gutxienez beste hainbeste egiteko harrobia badutela erakutsiko dute.

Klubak adin horretan dituen 50 gimnastak ez ezik, Bizkaia osotik (Bermeo, Gernika, Bilbo, Leioa...) etorritakoak ere batu-

ko dira: "Urtean zehar ikasten dutena erakusteko modua izaten da. Guk Bizkaiko klubak gonbidatzen ditugun moduan, batzuetan geu joaten gara kanpora. Aukera onak izaten dira herri desberdinetako gimnastek elkar ezagutu dezaten", azaldu du Barturennek.

Denboraldi arrakastatsua

2015ean zehar, azpimarratzeko moduko emaitzak lortu ditu Uztaik taldeak. Denetan bereziena, senior mailako taldeak Durangon bertan irabazi zuen Euskadiko txapelketa izan zen. Bizkaian azpitxapelkun geratu ostean, gimnastek euren onena eman zuten Euskadikoan. Junior mailako taldea, berriz, Bizkaiko txapelkun geratu da aurtun.

Bakarkako txapelketetan Ane Trancho izan da gehien nabarmendu dena. 19 urteko durangarra Bizkaiko txapelkun geratu zen maila absolutuan. Zaila izango da aurtengo lorpenak 2016an errepikatzea, baina "gimnastak ilusioz eta pozik dabilzala ikustea, hori da guretzat emaitzarik onena".

20 urteko lanak bestelako errekonozimenduak ere jaso ditu. Esaterako, aurtun, San Fausto jailetako pregoi txikia irakurri zuten Uztaik taldeko gaztetxoek.

Judoka gazteak onenen artean izateko borrokan

Dominaz domina, Espainiako txapelketara sailkatu ahal izateko bidea egiten ari dira

> JUDO J. D. Durango Judo Klubeko Mikel Carretas eta Daniel Grigore kadeteak brontzezko domina banarekin itzuli dira oraintsu Zaragozan jokatu den Aragoiko Kopatik. Datozen asteetan, Euskadiko txapelketaren barruko hainbat proba (Iruñea, Hondarribia...) lehiatuko dituzte klubeko gazteek, eta Zaragozakoak horietarako prestaketa moduan balio izan zien. Zaragozara joan

ziren klubeko judoka denak Bizkaiko selekzioarekin ibili dira aurtun. Datozen asteetako probak erabakigarriak izango dira Espainiakora sailkatu ahal izateko.

Bestalde, Eider Vivancok eta Maria Bazanek brontzezko dominak irabazi dituzte Hernanin jokatu den nagusien mailako Euskadiko txapelketan. Judoka biek junior mailako lehen urteko adina dute.



Kadete mailako judokak ezkerrean; M. Rodriguez eta A. Martin benjaminak eskuman.

Nissan-Gaursak irabazteko lehia du El Salvadorren aurka

Valladolideko taldea azken postuetan dago, eta etxetik kanpora jokatu denak galdu ditu

> EERUGBIA J. D. Durango Nissan Gaursa errugbi taldeak Valladolideko El Salvadorren bisita jasoko du bihar, 16:30ean, Arripausuetan. Oskar Astarloak gidatzen duen taldea sailkapenaren erdian eta goranzko joerarekin dago Ohorezko B Mailan. Horregatik, bihar, irabazteko partidua du azken

postuetatik gertu dagoen El Salvadorren aurka. Valladolideko taldeak etxetik kanpora jokatu dituen hiru partidua galdu ditu orain arte. Nissan Gaursa, aldiz, gero eta hobeto dabil etxean. Esaterako, etxeko azken norgehiagokan lider kokatuta zeterren Zarautz taldea menderatzea lortu zuen.

Presion Break lider areto-futboleko Hirugarren Mailan

> ARETO FUTBOLA J. D. Durangaldeko areto-futbol talde denen artean, Berrizko Presion Break da, gaur egun, onena. Inor baino gorago daude: Hirugarren Mailan eta lider.

Bederatzi jardunaldi joan dira, ligako herena, eta berriztarrak sendo ageri dira. Etxetik kanpora jokatu den lau partidua irabazi dituzte. Bihar, Tolosako Laskorain bisitatuko

dute, bolada on horri eusteko esperantzaz.

Elorriko Buskantza sailkapenaren erdian dago. Presion Break ez bezala, etxetik kanpora kosta egiten zaio puntuak batzea. Asteburuan, sailkapeneko hirugarren dagoen Gallartako Meatzari Petronorren kantxan jokatu dute.

Sasikoa Durango, eskualdeko hirugarren ordezkaria, larri dabil. Azken-aurreko tokian dago, eta partidua bakar irabazi du orain arte. Domekan, 12:00etan, mailari eusteko borrokan arerio zuzena duen Ostadar taldea dator Durangora.

AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA (gizonak)

Durangoko Kulturala - Vitoria
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

EUSKAL LIGA (emakumeak)

Elorrio - Ugao
· Domekan, 18:30ean, Eleizalden.

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Derio
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaiain.

Elorrio - Somorrostro
· Domekan, 16:30ean, Eleizalden.

MAILA GORENA

Abadiño - Etxebarri
· Domekan, 15:30ean, Astolan.

LEHEN ERREGIONALA

Amorebieta B - Berriatuko
· Domekan, 17:00etan, Txolonen.

> ARETO-FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa Durango - Ostadar
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

EUSKAL LIGA

Elorriko Buskantza B - Aretxabaleta
· Barikuan, 20:00etan, Elorriko kiroldegian.

Sasikoa Durango - Zalditxo de Araia
· Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian.

Mallabia Seguros Altaldi - Scalibur

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

EMAKUMEEN LIGA

Elorriko Buskantza - Iruaitzaleak
· Zapatuan, 15:30ean, Elorriko kiroldegian.

Sasikoa - Soloarte

· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian.

> SASKIBALOIA

ZILARREZKO ADECCO LIGA

Zornotza Saskibaloi Taldea - Viten Getafe
· Zapatuan, 18:30ean, Larrea kiroldegian.

LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako Baqué - Padura
· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian.

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué - Ardoi
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Zornotza - Deusto-Loiola
· Domekan, 11:00etan, Larrean.

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Nissan Gaursa - El Salvador B
· Zapatuan, 16:30ean, Arripausuetan.

> PILOTA

BIZKAIKO TRINKETE TXAPELKETA (finalerdiak)

- Aspuru / Ziarrusta

- Ugarte /Gandiaga
· Barikuan, 18:30ean, Abadiño kiroldegian.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

ALKIMAXen delegazio berria Gernikan, urtarrilaren 1etik aurrera
Goiko Ibarra, 26 (Eroski ondoan) 946 271 310

ZURE OSPAKIZUNETARAKO KONPONBIDE GUZTIAK

EKIPO ELEKTROGENEOAK HESIAK AULKIAK
JAIMAK MAHAIK KONTAINERRAK BIDOIAK
MOTOPONPAK KASETAK EGUZKI-OIHALAK
ESZENATOKIAK MUNTATZEKO ALDAMIOAK
BAINU KIMIKOAK ILTZATZEKO MAKINAK
BILTEGIAK

• Makina-erraminta arloko konpontze eta mantentze zerbitzua ere eskaintzen dugu •

Eitua industriagunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 946 824 550 • alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



> **BOTIKAK**

| | |
|---|---|
| BARIKUA, 11 09:00-09:00 | Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza |
| Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango | 09:00-22:00 |
| 09:00-22:00 | Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza |
| Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza | ASTELEHENA, 14 09:00-09:00 |
| ZAPATUA, 12 09:00-09:00 | Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta |
| Gaztelumendi J.A. Abasola 2 - Durango | Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza |
| Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza | 09:00-22:00 |
| 09:00-13:30 | Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza |
| Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango | MARTITZENA, 15 09:00-09:00 |
| Mugica Andra Maria 9 - Durango | Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango |
| Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango | Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza |
| Navarro Artekalea 6 - Durango | 09:00-22:00 |
| Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango | Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza |
| Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango | EGUAZTENA, 16 09:00-09:00 |
| Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango | Exebarria Montevideo etorb. 2 - Durango |
| De Diego Intxaurrondo 22. - Durango | Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza |
| Bartolome Gabiola 2 - Berriz | 09:00-22:00 |
| Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio | Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza |
| Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza | EGUENA, 17 09:00-09:00 |
| Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza | Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango |
| 09:00-14:00 | Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza |
| Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta | 09:00-22:00 |
| DOMEKA, 13 09:00-09:00 | Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza |
| Mugica Andra Maria 9 - Durango | |

> **EGURALDIA**

| | | |
|------------|-----------|--|
| ZAPATUA | 14° / 5° | |
| IGANDEA | 15° / 8° | |
| ASTELEHENA | 16° / 10° | |
| ASTEARTEA | 18° / 7° | |

> **ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org
eguazteneko 14:00ak arteko epea



Ermodo, 11
DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

Gozatu Gozategia

Zorionak, **Uxue (612 znb.)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Abenduaren 14an **Aialak** bost urte beteko ditu. Zorionak lastzana, eta muxu erraldoi bat zure ahizpa Ane eta familia guztiaren partez.



> Durangoko **Ekain Montecelok** 10 urte egin ditu azaroaren 29an. Zorionak eta musu handi handi bat familia guztiaren partez!



> Zorionak, **Alexia**, gurasoen eta zure anaiaren partez. Musu handi bat eta oso ondo pasau!!



> Matienatik, zorionak, **June!** Merengezko pastel iraultza prestatzen dabil baina marra gorriekin, Athleticengatik!



> **Iñakik** bozina, eta ni gabarra prestatzen nabil. Zuek ekarri cava Ondarrutik. Zorionak, handixe Athletic!



> **Aihotzek** abenduaren 1ean 9 urte bete zituen. Zorionak etxekuen partez, eta jarraitu alai izaten. Muxutxuak!



> Zorionak, **Tomas!** Gozatu zure egunaz, eta ospatu merezi duzun moduan! Yosu eta Carmenen partez.



> Abenduaren 2an eta 4an amama **Begoñak** eta gure txikixek urteiek ein dabez. Zorionak eta mosu potolo bat bixori! Zorionak be Alexander, Telmo, Beñat eta Araiari!



> **Zigor Gerediaga Ingunzak** 31 urte beteko dauz abenduaren 12an. Ondo pasau daizela! Holan, Porrotxen umoreagaz ta alai ikusi gure dogu. Zure lagunek!



> Eguaztenien **Abadiño**ko neska handi honek ja 10 urte bete dauenez, zorionak **Laiatz!**



> Abenduaren 12an, **Leire** 6 urte egiten ditu. Zorionak etxeko politteri, Nerea, Asier, aita, aitite, amama Blanki, amama Carmen ta amatxoren partez. Infinitoraino eta bueltan maite zaitugu!



> Zorionak, amama! Etxeko guztien partez eta Paultxon partez musu erraldoi bat. Muuuuuu!

NEUMATICOS ETXEBARRIA

Euba auzoa, N-634 errepide ondoan
Tfno. zkia.: 94 630 80 10

Uribitarte industrialdea, Matienako Eroski ondoan
Tfno. zkia.: 94 623 25 20

4

negu digitala

AZAROAREN 30ETIK ABENDUAREN 31RA ARTE
VIALIDER TAILERRETAN ZAIN DUZU

PNEUMATIKO MICHELINEN TRUKE

ESKURA EZAZU



PNEUMATIKO MICHELINEN TRUKE

EROAN EZAZU




smartWATCH

UNOTEC BIKAIN HAU

BLUETOOTH ERLOJUA - DEIAK - JAKINARAZPENAK - MUSIKA
ARGAZKIAK - PODOMETROA - BOZGORAILUA - ETA GEHIAGO...

miniCAM

UNOTEC ZORAGARRI HAU

MINI DV KAMERA - 4 GB-KO MICROSD TXARTELA
VGA - 480 PX - LI BATERIA - 2.0 USB-A

2

www.vialider.es

JARRAITU GAITZAZU!

Promozio hau 2015eko azaroaren 30etik abenduaren 31ra egongo da martxan. Vialiderreko kide diren tailerretan egongo dute promozioa, gutxienez, autoentzako, kamioientzako edo 4x4 ibilgailuentzako 2 pneumatiko erabiltzen. Promozioaren sinismak eskuragarri daude www.vialider.es webgunean eta Vialider saltokietan. Oparien kalorea gutxi gorabeherakoa da.



EUSKARAK
365
 EGUN
erabizi



Oparia
 topetan
Olentzero egunerako?

Hotel Areatza
 ★★★ Balneario

informazioa eta erreserbak: info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705

www.hotelbalnearioareatza.com

Menu Bereziak zure ospakizunetarako.

Aukeratu gure
Bonu Opariak

- * Masajeak, Zirkuitu termalak,
- Bonu gastronomikoak,
- Bainu hidromasaje bikoitzak,
- Estalkiak, Fisioterapia,
- Hotel+bainuetxeko bonuak

28€-tik aurrera

